

**ELAREN IRITZIA EUSKO JAURLARITZAK FORU-ALDUNDIEI
EGIN DIEN PROPOSAMENARI BURUZ**

2011ko uztailaren 28a

0- SARRERA

Uztailaren 20an Patxi Lopez Lehendakaria Ahalduen Nagusiekin bildu zen, hauei “Foru-Aldundiekin erakunde arteko lankidetzarako proposamena” aurkezteko.

Agiri horretan lanerako lau esparru proposatzen dira politika eta proposamen partekatuak garatze aldera:

- Enpleguaren eta berraktibatze ekonomikoaren aldeko konpromisoa.
- Gizarte-politika eta –zerbitzuak elkarrekin garatzeko konpromisoa.
- Euskal herri-administrazioetan inefizientziak eta bikoiztasunak erauzteko konpromisoa.
- Ekitatea, eraginkortasuna eta nahikotasuna bermatuko duen fiskalitatea definitzeko konpromisoa.

Txosten honetan proposameneko hiru esparru aztertuko ditugu eta alde batera utziko dugu “Euskal herri-administrazioetan inefizientziak eta bikoiztuta dagoena erauzteko konpromisoa”, eduki bakarra eskari bat baita, Aldundiei azterketa bat egiteko lanera bil daitezen.

I-ENPLEGU POLITIKAK

“Enpleguarekiko konpromisoa” atalean ez da inongo neurririk jaso kalitatezko enpleguak hazkunde iraunkorra izan dezan. Bakarrik esaten da Jaurlaritza “Enpleguaren Euskal Estrategia” izenekoa prestatzen ari dela, sei ardatz dituen, baina hauek xehetasun handirik gabe aipatzen dira. Agiri honi buruz esaten da hainbat eragile ekonomiko eta sozialekin kontrastatzen ari direla. ELArentzat testu hau ezezaguna da, eta honek adierazten du Jaurlaritzak ez diola euskal gehiengo sindikalari bere enplegu-politikaren berri ematen, eta hark parte hartzerik ere ez duela nahi.

Dokumentuan Lanbide enplegua sustatzeko tresna eragingarri gisa aipatzen da, behin politika aktiboen eskumenak bereganatuta. Argi dago enpleguarekiko kezka duen gobernuaren itxura eman nahi dutela, baina bere politikak medio langabezia gehitzen ari da (enplegu publikoa murrizten ari delako eta aurrekontuen murrizketek dituzten ondorioengatik).

Ekainean Enplegu-Zerbitzu Publikoan erregistratuta 144.414 langabe zeuden EAEn, hots, %2,65eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, baina iazko hil berekoa baino %14,28 gehiago. EAEn ekainean langabezia tasa %11,61 izan zen.

Prestazioren bat jasotzen duen langabeen portzentajea aurreko hilarekiko 0,22 puntu murriztu da, eta 12,37 puntu aurreko urtearekiko. Egun langabeen %43,97ak besterik ez du langabezia prestazioren bat jasotzen.

2011ko ekainean erregistratutako kontratuen %5,6 baino ez da mugagabea izan. 2010eko ekainean kontratu mugagabeen ehunekoa zertxobait handiagoa izan zen, %5,8. Urtarriletik ekainera bitartean metatutako datuen arabera, 2011ko kontratuen %6,8 izan da mugagabea; aldiz, iazko ekainera arte metatutakoa %7,5 izan zen. Enplegua gero eta prekarioagoa da.

Enplegu-politika zehazgabe hauek erakusten dute Jaurlaritzak ez daukala egitasmorik enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortzeko, ezta gizarte-babesa hobetzeko ere.

II- GIZARTE-PRESTAZIO ETA -ZERBITZUAK

Puntu honetan batik bat bi esparru aztertzen dira:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren laguntzak

Eusko Jaurlaritzak iragarri du Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioak murrizteko asmoa duela (hots, DBEa bera, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak). Horretarako Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren Legea aldatu nahi du, honakoa lortzeko:

- Prestazioak datorren urtean aurreikustekoak diren aurrekontu-murrizketetara moldatzeko. Hots, Eusko Jaurlaritzak are gehiago murriztu nahi ditu gizarte-prestazioak. Gogora dezagun hainbat dekreturen bidez Eusko Jaurlaritzak dagoeneko prestazio hauek murriztu egin dituela eta lortzeko aukera mugatu.
- Prestaziorako eskubidea izateko baldintzak “era arrazoizkoagoan” ordenatzea, egungo baldintzak aldatuta. Baldintzak berrikusteak esan nahi du prestazio horiek lortzeko are oztopo gehiago jarriko dutela.

- Prestazioak jasotzen dituztenek “gizarteari laguntzaren bat” ematea nahi dute, prestakuntzan parte hartu edo egiten diren lan-eskaintzak onartu beharraz gainera. Ez dute zehazten “gizartearentzako laguntza” hori zer litzatekeen. Nolanahi ere, prestazioak jasotzen dituen jendea lanean jarri nahi dute, edozein dela ere lana, eta jarraitu egiten dute prestazioak jasotzen dituztenak alferrekin eta lan egin nahi ez duen jendearekin parekatzen. Une honetan, langabezia tasa hazten ari delarik, horrelako neurriekin gauza bakarra lortuko dute, pobrezia gehitzea. Prestazioak gero eta gutxiago dira eskubide eta gero eta areago betebeharrak.
- Prestazio hauetan gertatzen den iruzurra saihestea, hauek baitira “solidaritate sozial ezaren adierazpiderik nabarmenena”. Aipagarria da DBEa jasotzen dutenak egundoko ikuskatze kopurua jasan behar dutela. Argi dago krisi garaia baliatu nahi dituztela osagai gaizto eta intsolidarioak nabarmentzeko eta iritzi publikoan gizarte-prestazioen irudi txarra hedatzeko, honek aurrekontuak murrizteko proposamenak aurrera ateratzea erraztuko baitu. Gainera, honelako mezuek xenofobia elikatzen dute.

2. Gizarte-zerbitzuen prestazioa

EAEn gizarte-zerbitzuen estaldura maila oso txikia da. Menpekotasun egoeran dauden herritar gehienek ez daukate estaldura publikorik. Pertsonen eta familien egoera hau delarik, Jaurlaritzak egin duen agiriko diagnostikoak “Alizia herrialde harrigarrian” ipuinetik ateratakoa dirudi. Izan ere, agirian esaten baita dauden zerbitzuek “herritar solidaritatearen aitzindari egiten gaituzte”.

2008ko abenduan Eusko Legebiltzarrean onartu zen Gizarte-Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean hainbat xedapen gehigarri zegoen; hauetan esaten zen Gizarte-Zerbitzuen Legea gauzatzea posible egingo zuten osagaiak zein epetan onartu behar ziren. Hain zuzen, Legeak zioen 2009ko abenduaren 25erako onartuta egon beharko zirela, besteak beste, Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoa, baita Lehendakariaren agirian zehazten diren Gizarte-Zerbitzuen Kartera eta Mapa ere. Bada, prozesu hauetako bat ere ez da burutu; zirriborro edo oinarri-dokumentu fasean daude oraindik.

Gaur egun gizarte-zerbitzuetarako eskubidea EAEn ez dago bermatuta; honek adierazten du herri-administrazioek gizarte-zerbitzuak bermatzeari ematen dioten garrantzi hutsala.

Agirian egiten den azterketaren arabera, biztanleria zahartu egingo da, eta zehazten da 64 urtetik gorakoak %38,5 gehituko direla. Hitz ematen du “adinekoei zerbitzu egokiak” eskainiko zaizkiela “beren bizitza marginazioan edo pobrezian eror ez dadin”. Egiten ari diren prozesuan ekimen pribaturako joera argia antzematen da, eta honek gizarte-zerbitzuen kalitateari kalte egingo dio, kostua handitzeaz gainera. Itxuraz, gizarte-zerbitzuak ordaindu beharra ezarri nahi dute, ia kostu osoa kitatzeraino, eta ia-ia erabiltzaileen finantz-ahalmena agortzeraino.

Gizarte-zerbitzuen atalean konpromiso bakarra aipatzen da, Gizarte-Zerbitzuen Kartera eta Mapa onartzea, baina zein eskubide bilduko duten zehaztu gabe. Esan dugunez, hauek egiten ia bi urteko atzerapena daramate.

III- FISKALITATEARI BURUZKO PROPOSAMENAK

Patxi Lopezen proposamenetik adierazi diren iritzi gehienak fiskalitateari buruzko atalaz eman dira. Haatik, ez dira agiriaren benetako edukiak azaldu. Gainera, dokumentuak ez du zuzendu nahi den egoera aztertzen, eta hau oso garrantzitsua da kontutan izanik orain arte zerga-politika EAJ, PSOE eta PPren artean hitzartu izan dela.

Lehenik esan beharra dago proposamenaren oinarria Foru-Aldundiekiko “lankidetzat” dela. Beraz, erabakiak hartzeko beharrezkoa da hiru diputazioekin adostea (agian Zerga-Koordinaziorako Organoan, berau Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek osatzen baitute).

Arabako eta Bizkaiko Aldundiek dagoeneko horren aurkako iritzia eman dute. Adostasunik ezean, badirudi Jaurlaritzak inongo neurri konkreturik ez duela hartuko; horrenbestez, ELAk esan zuena berretsiko da, hots, hau irudi-kanpaina bat besterik ez dela.

Fiskalitateari buruzko proposamenak honela sailka daitezke:

1. Iruzurraren jazarpena

Iruzurrari jazartzeko neurri konkretu gutxi aipatzen da, hain zuzen hiru lurraldeetarako iruzurrari jazartzeko plan integral bat, “ikuskapenak gehituz”, baina beste xehetasunik gabe.

Deigarriena, eta kritika handiena merezi duena, iruzur fiskala eta gizarte-prestazioetan gertatzen den iruzurra parekatzea da. Behin eta berriz aipatzen da “zergetan eta gizarte-prestazioetan egiten den iruzurraren jazarpena”; “Zergen eta Gizarte-Prestazioen Kudeaketa eta Ikuskatze Urteko Txostena” egingo da; “Foru-Ogasunen zergei eta gizarte-prestazioei

buruzko datu-baseen interkonexio informatikoa denbora errealean, Lan-Ikuskaritzarekin eta Lanbiderekin lankidetzan”, etab.

Gizarte-prestazioetako iruzurra (Jaurlaritzaren agiriko beste atal batean jasota dagoena) kritikatzeko moduko da. Alabaina, ELAk oso larria irizten dio iruzur fiskalarekin parekatzeari:

- Prestazioen kontrol maila zergena baino askoz handiagoa da.
- Esaterako Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetan jazo daitekeen iruzurra -Jaurlaritzaren 2011ko aurrekontuen arabera 17,3 milioi euro- hutsaren hurrengoa da, iruzur fiskalean ezkututzen diren milaka milioi euroen aldean (gogora daiteke Emilio Botinek Suitzako banku bateko kontu bakarrean 200 milioi eurotik gorako iruzurra egin duela).
- Kolektiborik ahulenak kriminalizatzen dituen joerarekin bat eginda, kapitalaren eta errenta handien alde egiten da, hauek badira ere Ogasunei iruzurrik handiena egiten dietenak.

Zehaztu den puntuetan bi proposamen deigarriak dira, txarrak direlako:

- Hitzarmenak sustatzea profesional eta banakako enpresaburuen kolektiboekin. Hots, diru publikoa ematea itxuraz iruzurrik handiena egiten dutenekin.
- Zerbitzu publikoen erabiltzaileei pro-forma fakturak ematea, kostuen berri emateko. Hau ordaina ezartzeko lehen urratsa da. Informazioa ematea garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina ez da Eusko Jaurlaritzak (edota ogasunek) egin ohi duena.

2. Araudiaren aldaketak

Proposamenak araudia aldatzeko beharra aipatzen du, zerga gutxiago ordaintzearen erabiltzen den ingeniarietza fiskala ekiditeko.

Halere, Eusko Jaurlaritzaren proposamenak, bide onean joanagatik, egungo legedian ukitu txiki batzuk besterik ez dira, eta noski, hainbat ‘adituk’ aurrez egindako dokumentuen edukiekin ez daukate zerikusirik. Benetako aldaketa ekarriko luketen neurriak proposamenetik kanpo geratu dira: adibidez, zergak murrizteko sozietateen sorrera galaraztea, enpresen bidez norbere gastuen kenkariak egiteko aukera eragoztekoa edota aitortzen diren diru-sarrerekiko gehiegizko gastuen jarraipen zorrotza.

Oihartzunik handiena izan duten aldaketa proposamenak Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea edota lerro zuzeneko ondorengotza eta dohaintzen gaineko zergak dira. ELAren ustez zehaztasun handiagoa behar da.

Aipatu izan den beste kontu bat proposatutako PFEZeko gehienezko tasa marjinalaren igoera da, %45etik %47ra, 120.000 eurotik gorako diru-sarreretan. Igoera azalekoa da, azken urteetan egin diren murrizketen ondorioz %56tik 45era jaitsi baita tasa hori.

Haatik, Jaurlaritzaren proposamenean badira ia ustekabeen pasa diren beste neurri batzuk, oso larriak betiere, batik bat honako biak:

- Zerga-eraginetarako ETetzat hartzen diren enpresentzako Sozietateen Zergako tasa nominala %24tik 23ra jaitea.
- Enpresa-jardueren etekinentzat PFEZaren progresibitatea kentzea. Kolektibo hauentzat %23ko tasa bakarra ezartzea proposatzen da.

Mahairatu diren aldaketa horiek ez doaz inondik ere beharrezkoa den norabidean, eta arlo fiskalean eta sozialean justizia handiagoa ekarri ordez atzera egitea eragin dezakete.

Araudiaren aldaketei dagokienez, deigarria da ere Sozietateen Zergako kenkarien berrikuspena (hauek enpresek etekinengatik ordaindu beharko luketen kopurua erdira jaitea dakarte) nola aipatzen den, argi geratzen baita ez dela ia aldaketarik egin nahi.

IV- ONDORIOAK

ELAren irudiko, Patxi Lopezek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusiei aurkeztu dien agirian jasotako proposamenak oro har kalterako dira, eta egungo egoera okertu egiten dute. Ez dira enplegu-politikak zehazten, murrizketak iragartzen dira prestazio ekonomikoetan (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak), ez dago borondaterik menpekotasun egoeran dauden pertsonentzat gizarte-zerbitzuak izateko eskubidea bermatzeko, eta fiskalitateari dagokionez, badira proposamen egokiak, baina beste batzuren ondorioz progresibitatea soilik lan-errentetan aplikatuko litzateke. Proposamen hau bat dator patronalaren jarrerarekin: ugazaben ustez eurei zergak igotzen hasi baino lehenago murrizteko aukera ugari dago.

ELAk exijitzen du Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek politikak alda ditzatela. Orain helburu bakarra defizit publikoa murriztea da, eta hau gizarte-gastua gutxituz lortu nahi da. ELAk berretsi egiten ditu beste une batzutan egin izan dituen proposamenak. Politika neoliberalen porrota gero eta nabarmenagoa da, eta horiei eusteak langabezia, prekarietatea, pobrezia, gizarte-babes eza eta desberdintasunen areagotzea eragiten du.